| | |
|---|---|
| **Ekipoa** | **Andelak garbitzeko sistema itxia, disolbatzaileak birsortzearen bidez** |
| **Kodea** | B-2016 |
| **Ingurumen-hobekuntza** | Birsortutako disolbatzailea berrerabiltzen da eta KOL emisioak gutxitzendira. |
| **Honetan datza:** | Pinturak, koloratzaileak eta inprenta-tintak ekoizteko prozesuko jarduera kutsagarrienetako bat da nahasketak egiteko erabilitako andelen garbiketa. Jarduera horren ondorioz, disolbatzailea atmosferara igortzen da, eta, gainera, disolbatzaile eta produktu kimiko ugari duten hondakin-urak sortzen dira.<br><br>Andelak garbitzeko sistema itxian, disolbatzaileak birsortzearen bidez eragozten da disolbatzaileak atmosferara igortzea. Garbiketa prozesuan, disolbatzaileak bildu eta berreskuratu egiten dira, gero berrerabiltzeko.<br><br>Instalazio osoa garbiketa-unitate itxi bat da, ebakuazio-sistema eta guzti. Instalazio hori disolbatzaileak birsortzeko unitate batera konektatuta dago. |
| **Zein sektoretan aplikatu daitekeen** | Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.<br><br>Teknika hau honako hauetan aplikatu daiteke:<br><br>- Pinturen, bernizen eta estalduren fabrikazioa (NACE 20.3).<br><br>- Antzekoak: inprentako tintak, masillak.<br><br>- |

-